

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Erabakia, Sukaldari lanposturako hautatuarena onesten duena kontratazioa, Gazteriaren Foru Erakundearen 2018ko enplegu eskaintza publikoan hautaketa prozesurako deian, Gazteriaren Foru Erakundea Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoko lan kontratudun langileak kontratatzeko, uztailaren 10eko 374/2018 Erabakian, zeinaren bidez Gazteriaren Foru Erakundearen 2018rako enplegu eskaintza publikoa onesten den, aurreikusitakoaren arabera

Uztailaren 10eko 374/2018 Erabakiaren bidez Gazteriaren Foru Erakundearen 2018rako enplegu eskaintza publikoa onestu zen.

2019ko maiatzaren 21eko Administrazio Kontseiluaren ebazpenaren bitartez onartu ziren Gazteriaren Foru Erakundearen 2019ko hautapen prozesuak arautzen duten oinarri orokorrak.

2021eko urtarrilaren 27ko behin betiko zerrenda argitaratu zen, Sukaldari lanpostuan. Hautatutako izangaia ondoren zehazten den lanpostura atxikita dago:

| IZENA | LANPOSTUA | KODEA |
|------------------------------------|------------|--------|
| Aitor Martínez de Marigorta Angulo | Sukaldaria | 080112 |

Oinarri arautzaileen 8. apartatuarekin bat etorritz, pertsona honek aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ditu ezarritako epearen barruan, eta agiri horiek aztertuta, ondorioztatzen da izangaia eskatutako betekizunak betetzen dituela; horrenbestez, egokia da pertsona honek langile lan kontratudun gisa kontratatzea, lanpostuen zerrendan lanposturako ezarritako baldintzekin bat etorritz.

Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Arautegia onartzen duen ekainaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari dagokio, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluko lehendakaria den aldetik, funtzio publikoan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailarekin elkarlanean, Erakunde Autonomoko funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuen deialdia eta oinarriak onartzea; bere ardura izango da, baita ere, prozedura horiek ebaztea.

Horregatik guztiagatik, ebazpen hau ematen da:

EBAZPENA

Lehenegoa. Onestea Gazteriaren Foru Erakundearen 2018ko enplegu eskaintza publikoko Sukaldari lanposturako kontratatzea ondoren zehazten den lanpostura atxikita dagoen izangaia:

| LANPOSTUA | LANPOSTUA | KONTRATAZIO ERREGIMENA | IZEN-ABIZENAK |
|-----------|------------|------------------------|------------------------------------|
| 080112 | Sukaldaria | Lan-kontratu Finkoa | Aitor Martínez de Marigorta Angulo |

Bigarrena. Izendatutako izangaia hilabeteko epea du lanpostuaz jabetzeko, izendapena komunikatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epe hori hamabost egun luza daiteke, izangaia hala eskatzen badu, eta horretarako bidezko arrazoirik izanez gero.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezarritako epealdiaren barruan lanpostuez jabetzen ez bada, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioa izateko eskubideak, deialdiaren ondoriozkoak, galduko ditu.

Hirugarrena. Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, aukeran, berraztertze errekurtsua, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean, hilabeteko epean. Hain zuzen, hala egin ahal izango da bat etorritz uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenaren, 123. artikularekin eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 123. artikularekin.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 22a

Kultura eta Kirol diputatua
ANA MARIA DEL VAL SANCHO